

4-2019 ZIRKULARRA

Donostia, 2019ko maiatzak 15

Lankide estimatua:


Joan den maiatzaren 8an, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Udal Batzarrak 2019ko martxoaren 6an onetsitako "[Espainiako Abokatutzaren Kode Deontologiko](#)" berriaren Deontologia Arauak sartu ziren indarrean, eta maiatzaren 8tik 11ra bitartean Valladoliden egindako Espainiako Abokatutzaren XII. Biltzarra horri eskainia egon da neurri batean.

Hori dela eta, gogorarazi nahi dizuegu Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.22 Artikuluak gure Autonomia Erkidegoari konpetentzia eskusiboa esleitzen diola Elkargo Profesionalei eta lanbide tituludunen jardunari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoaren kontra joan gabe.

Eusko Legebiltzarraren azaroaren 21eko 18/1997 Legeak Euskadiko Autonomia Estatutuaren lurralde-eremuaren barruan burutzen diren lanbide tituludunen jarduna arautzen du, baita Elkargo eta Kontseilu profesionalena ere, eta honako eginkizun hauek aitortzen dizkie: beren Estatutuak modu autonomoan prestatzea eta onestea, etika profesionalaren alde eta legearen barruko jardura profesional egoki baten alde lan egitea, eta halaber, Elkargokideen betebeharrak eta eginbeharrak betearaztea.

Lege-aurreikuspen honen bidez, gure Elkargoaren estatutuek beren 91. Artikuluan aurreikusten dutenez, "Estatutu honetan eta lanbideari aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako betebeharrak profesionalak betetzen ez dituzten abokatuei diziplinazko erantzukizuna egotziko zaie, horrez gainera egotz lekiekeen beste edozein erantzukizun penal, zibil edo administratiboren eragozpenik gabe", eta bere Lehen Xedapen Gehigarriaren arabera –"Arau Deontologikoen Izaera" deiturikoa–, "Estatutu honen ondorioetarako eta, batez ere 10.3 Artikuluko gatazkak konpontzeko arauaren ondorioetarako, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren arau deontologiko propioen izaera dute, Estatutu honek bere egiten dituen beste jokabide-kode batzuetan jasota egon badaitezke ere, honako agindu hauetan zehazten direnak: 23. artikulutik 28.era bitartekoetan, biak barne eta osorik; 31. artikulutik 34.era bitartekoetan, biak barne eta osorik; 35. artikuluko 1, 2 eta 4 idatz-zatietan; 36. artikuluan; 38.2 artikuluan; 38.2 artikuluan eta 44. artikuluan".

Besarkada handi bat.

**LURDES MAIZTEGUI**  
**DEKANOA**